

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BOVEDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea VI-10.111 ehiza barrutia, Boveda izenekoa, berritzeko

Boveda izeneko VI-10.111 ehiza barrutia berritzean sartuta egongo direnez horren mugen barruan dauden lurzati pribatu zein publiko guztiak, Bovedako Kontzejua eragindako lurren jabeen baimenak biltzen ari da, Euskadiko ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzati publikoen artean onura publiko mendi (OPM) hauek sartzen dira:

- 135 OPM, Toyo izenekoa, Bovedako Kontzejuarena.
- 121 OPM, Lerón izenekoa, Bovedako Kontzejuarena.

OPM horien kartografia espedientean jasota dago. Espediente hori kontzeju honetan dago interesdunen esku.

Horretarako, iritziko da ezen iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita 15 egun balioduneko epean horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek baimen esangabea ematen dutela, eta ulertuko da kontzeju horiek baimena daukatela ezarritako epean kontra agertzen ez diren lurzati eta finka guztiak sartzeko ehiza esparru horretan. Espedientea interesdunen esku dago.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Boveda, 2021eko ekainaren 11

Lehendakaria

RAFAEL GONZALO OCHOA